

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO
DEPARTAMENTUA**

Añarbeko behe kanaleko 7. eta 8. etxoletako sarbideak hobetzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena.

1. Aurrekariak.

2018ko urriaren 4an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurumeneko eta Lurralde Oregako Departamentuak Donostiako eta Errenteriako udalerrietan Añarbeko behe kanaleko 7. eta 8. etxoletako sarbideak hobetzeko proiektuari buruzko dokumentazioa igorri zuen Ingurumen Zuzendaritza honetara, proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin zezan (proiektu hau Añarbeko Urak, S.A.k sustatzen du). Proiektua eta dagozkion eranskinak (memoria, planoak, aurrekontua, preskripzio teknikoan agiria) eta dagokion ingurumen dokumentua hartzen ditu barne aipatutako dokumentazioak.

Jarduketa hau oso-osorik planteaturik dago Natura 2000 Sareak babestutako espazio batean, Aiako Harria Batasunaren Intereseko Lekuaren (BIL) eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) barruan hain zuzen, zeina Parke Natural ere izendaturik baitago.

Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 7.2.b) artikuluan ezartzen du, ezen, Natura 2000 Sareak babestutako espazioetan zuzeneko edo zeharkako eragin nabarmena izan dezaketen proiektuak, I. eta II. eranskinean jasota ez daudenak –kasu honetan bezala–, ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatu baten xede izango direla. Horretarako, legearen 45.etik 48. artikulura bitartean ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Beraz, prozedura horren esparruaren barruan, eta 21/2013 Legearen 46. artikuluan zehaztutako kontsulten izapidea egin eta gero, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen inpaktuaren txostena ematea; Legearen III. eranskinean ezarritako irizpideekin bat eginik, eta egindako kontsultek utzitako emaitzak ikusita, txosten horretan erabakiko da proiektuak ingurumenaren gainean ondorio esanguratsuak izan ditzakeen edo Aiako Harria BIL/KBEaren kontserbazio helburuen gainean eta bertako habitat eta espezieen gainean ondorio nabarmenak izan ditzakeen, eta beraz, ohiko ingurumen inpaktuaren ebaluazioa behar duen; edo ondorioz ez duen, txostenean ezarritakoaren arabera.

2. Egindako kontsultak.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek kontsulta egin die eragindako edo interesatutako hainbat administrazio, persona eta erakunderi, eta Añarbe, S.A.k igorritako dokumentazioa jarri du haien esku. Hona hemen zerrenda:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y OBRAS HIDRÁULICAS**

Informe de impacto ambiental del proyecto de caminos de acceso a las casetas 7 y 8 del canal bajo de Añarbe.

1. Antecedentes.

Con fecha 4 de octubre de 2018, el Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa remitió a esta Dirección de Medio Ambiente para su evaluación de impacto ambiental simplificada la documentación referente al proyecto de caminos de acceso a las caseta 7 y 8 del canal bajo de Añarbe, en los términos municipales de San Sebastián y Errenteria, promovido por Aguas del Añarbe, S.A. Dicha documentación incluye el proyecto con sus anejos correspondientes (memoria, planos, presupuesto, pliego de prescripciones técnicas) y el documento ambiental correspondiente.

Esta actuación se plantea íntegramente dentro de un espacio protegido de la Red Natura 2000, en concreto, en el Lugar de Importancia Comunitaria (LIC) y Zona Especial de Conservación (ZEC) de Aiako Harria, que a su vez está declarado como Parque Natural.

En el artículo 7.2.b) de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental se establece que, los proyectos no incluidos en sus anexo I y II –como es el caso–, que puedan afectar de forma apreciable, directa o indirectamente, a espacios protegidos Red Natural 2000 serán objeto de una evaluación de impacto ambiental simplificada, para la que se seguirá el procedimiento establecido en los artículos 45 al 48 de la ley.

Por tanto, en el marco de ese procedimiento, y tras la realización del trámite de consultas especificado en el artículo 46 de la Ley 21/2013, corresponde a la Dirección General de Medio Ambiente emitir el informe de impacto ambiental, en el que, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo III de la Ley y a la vista del resultado de las consultas realizadas, se determina si el proyecto puede producir efectos significativos sobre el medio ambiente o puede afectar de forma apreciable a los objetivos de conservación del LIC/ZEC de Aiako Harria y al estado de sus hábitats y especies, y, por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación de impacto ambiental ordinaria; o no los tiene en los términos que se establezcan en el informe.

2. Consultas efectuadas.

Esta Dirección General de Medio Ambiente ha consultado a las siguientes administraciones, personas e instituciones afectadas o interesadas, poniendo a su disposición la documentación remitida por Aguas de Añarbe, S.A.:

- Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección de Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- Eusko Jaurlaritzako Lurralde eta Hirigintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Gipuzkoan duen Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.
- IHOBE.
- URA Uraren Euskal Agentzia.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Gipuzkoako Itsasertzetako Zerbitzu Probintziala.
- Errenteriako Udala.
- Donostiako Udala.
- San Markos Mankomunitatea.
- Eguzki talde ekologista.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista.
- Itsas Enara ornitologia elkarte.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte.
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentzia.
- Donostiako Sustapena.

Halaber, dokumentazioa iragarri egin da eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Interneten duen atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus) ere eskura egon da, publikoak oro har eta gai honetan interesatuta egon daitezkeen pertsona guztiek ingurumen izaerako nahi adina ekarpen egin ditzaten.

Ezarritako epea amaituta, eta txosten honek dakarren datara arte, egindako kontsultei ondoko erantzunak eman zaizkie:

- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzak jakinarazi duenez, Zuzendaritzaren dokumentazioa kontuan hartuta eta proiektuaren dokumentazioa aztertu ondoren, horri buruzko txostenik ematea ez du beharrezkotzat jotzen.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak jakinarazi duenez, proiektuaren eremua bat dator nekazaritza erabilerekin (belardiak eta zuhaixka larreak) eta nekazaritza sektorearen afekzioa ebaluatzea gomendatzen du, dagozkion prebentzio neurriak, neurri zuzentzaileak eta neurri konpentsatzaileak har daitezzen.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi duenez, Kultura Ondarean ez dute eraginik antzeman.
- Gipuzkoako Itsasertzetako Zerbitzu Probintzialak azaldu duenez, lanen eremua ez dago itsasbazterren legearen eraginpean.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak jakinarazi duenez, prebentzio neurriak eta lehengorarik ez dagoela edo zero balantzea dagoela bermatzeko neurriak hartu behar direla dio (eragindako eremua baino bi aldiz

- Dirección de Planificación Territorial y Urbanismo del Gobierno Vasco.
- Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.
- Dirección de Infraestructuras del Transporte del Gobierno Vasco.
- Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.
- Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.
- Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.
- Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.
- Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.
- Dirección de Energía, Minas y Administración Industrial del Gobierno Vasco.
- IHOBE.
- Agencia Vasca del Agua URA.
- Confederación Hidrográfica del Cantábrico.
- Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa.
- Ayuntamiento de Errenteria.
- Ayuntamiento de San Sebastián.
- Mancomunidad de San Marcos.
- Grupo ecologista Eguzki.
- Grupo ecologista Ekologistak Martxan Gipuzkoa.
- Grupo ornitológico Itsas Enara.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte.
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- La Agencia de Desarrollo Comarcal Oarsoaldea.
- Fomento de San Sebastián.

Asimismo, la documentación ha sido anunciada y ha estado accesible en el portal de internet de la Dirección General de Medio Ambiente (www.gipuzkoaingurumena.eus) para que el público general y cualquier interesado pudiesen realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerasen oportunas.

Finalizado el plazo establecido y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas a las consultas efectuadas:

- La Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco comunica que en base a la documentación de la Dirección y una vez analizada la documentación del proyecto, no considera necesario emitir informe al respecto.
- La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco informa que el ámbito del proyecto coincide con usos agrarios (pastizal y pasto arbustivo) y recomienda que se evalúe la afección sectorial agraria de forma que se tengan en consideración las correspondientes medidas preventivas, correctoras y compensatorias.
- La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco informa que no se aprecian afecciones en el Patrimonio Cultural.
- El Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa refiere que la zona de los trabajos no se ve afectada por la legislación de costas.
- La Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco informa que se consideran adecuadas las medidas preventivas y las medidas de restauración, pero que resulta necesario adoptar medidas para garantizar que la pérdida de patrimonio natural sea nula o de balance cero (compensa-

handiagoa den azalera batean haritzak/baso mistoko espezieak landareztatzearen bidezko konpentsazioa); horrez gain, planteatutako neurri guztiak beteko direla bermatzeko ingurumen aholkularitza bat edukitzea ere beharrezkoa dela esan du.

– URA Uraren Euskal Agentziak adierazi duenez, ez dago aurreikusita proiektuak ur masen gainean ingurumen inpaktu esanguratsurik izatea, eta proiektuan planteatu diren neurriak egokitzat jo ditu; horrez gain, Errekabeltz errekaostaren ezkerreko aldean babes hesiak jartzeko premia ebaluatu beharko litzatekeela iradoki du. Halaber, obrak gauzatzeko hasi baino lehen, arro erakundeari nahitaezko baimena eskatu behar zaiola ere gogoratu du.

– Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak jakinarazi duenez, ubideak babesteko eremuan proiektatutako jarduketek arro erakundearen nahitaezko baimena behar dute; baimen hau Uraren Euskal Agentziaren aurrean izapidetu behar da.

– Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailak Gipuzkoan duen Lurralde Ordezkaritzak azaldu duenez, ingurumen inpaktuen azterketa egiteko orduan edo ebaluazio prozesuan bertan kontuan hartu beharreko funtsezkotzat jo litekeen inpaktu nabarmenik ez dakar proiektu honek osasun publikorako.

Erantzunengatik eta ekarpenengatik adierazitako alderdiak –ingurumen inpaktua ebaluatzeko prozeduraren berezko helburu eta edukietan eragina dutenak– aztertu egin dira eta kontuan hartu dira ingurumen inpaktuaren txosten honetako hainbat ataletan.

Halaber, jasotako erantzun guztiak, eta txosten hau eman eta gero iritsiko direnak, organo sustatzaileari igorriko zaizkio, proiektua prestatu eta izapidetzeko orduan kontuan har daitezkeen, hala badagokio.

3. 21/2013 Legearen III. eranskinean ezarritako irizpideen araberrako azterketa.

A) Proiektuaren ezaugarriak:

Añarbeko Uren Mankomunitatea osatzen duten herriak urez hornitzen dituen sistemaren eroanbiderik garrantzitsuen Añarbeko Behe Kanala da. Kanalak dituen 12 kilometroetan zehar 23 kontrol elementu ditu eta horien interdistantzia aldakorra da. Etxola izeneko elementu hauei ematen zaizkien erabilera ugarien barruan, sifoi buruko etxolak daude (sifoiaren puntu baxuak garbitzeko eta garbi edukitzeko aukera ematen dutenak); gero, kanaleko hondar-kutxak aterpetzen dituzten etxolak daude (elementu astunak dekantatzeko balio dutenak), eta azkenik, tuneleko sarrera-irteerekin bat datozen etxolak daude (zati hauek dira arriskurik handienekoak, luiziengatik).

«Behe Kanala apurtuz gero, Hornidurarako Kontingentzia Plana»-ren barruan, kanalaren irisgarritasunari buruzko azterketa zehatz bat egin da, kontrol elementu edo etxola bakoitzera eta bide zati bakoitzera daramaten sarbideak definituz, premiak zehaztuz eta sarbide berri bat exekutatzeko bideragarria izango litzatekeen puntuetan balizko konponbideak planteatuz.

Testuinguru honetan, C-7, C-15 eta C-16 etxolen sarbideak lehenetsuzkotzat jo dira. Aiako Harria KBEan dauden etxolei dagokienez, C-7 etxolatik gora, errekan gora, ibilgailu sarbiderik ez dago; areago, tarteko bide zati batzuetan, oinezkoen sarbiderik ere ez dago. Beraz, C-7 etxolaren sarbidea hobetzeko lanen definizioa aprobetxatuz, C-8 etxolaren goialdeko sarbidea hobetzeko aukera ere antzeman zen, kanalaren sifoiaren baten burua baita (gaur egun, oinezkoen sarbide bat baino ez dauka bukaerako zatian). Oinezkoen sarbide hau nahikoa da uhatei eragin ahal izateko; kanalaren mantentze eta artapen lanak egiteko, ordea, ez da nahikoa.

ción por revegetación con especies del robledal/bosque mixto en una superficie de al menos el doble de la afectada), y que se cuente con una asesoría ambiental que vele por el cumplimiento de todas las medidas planteadas.

– La Agencia Vasca del Agua URA indica que no se prevé que el proyecto pueda causar impactos ambientales significativos en las masas de agua presentes en el ámbito, y que las medidas correctoras planteadas al respecto se consideran adecuadas, sugiriendo que se evalúe la necesidad de disponer de barreras de protección en la margen izquierda de la regata Errekabeltz. Asimismo recuerda que con anterioridad a la ejecución de las obras se debe de obtener la preceptiva autorización del organismo de cuenca.

– La Confederación Hidrográfica del Cantábrico informa que las actuaciones proyectadas en zonas de protección de cauces requieren de la obtención de la autorización del organismo de cuenca, la cual se formulará ante la Agencia Vasca del Agua.

– La Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco considera que el proyecto no presenta impactos de consideración para la salud pública que supongan aspectos fundamentales que deban ser tenidos en cuenta a la hora de la realización del estudio de impacto ambiental o en el propio proceso de evaluación.

Aquellos aspectos señalados por las respuestas y aportaciones recibidas que inciden en los contenidos y objetivos propios del procedimiento de evaluación de impacto ambiental se han analizado y tenido en cuenta en los distintos apartados de este informe de impacto ambiental.

Asimismo, todas las respuestas recibidas, y las que lleguen de forma posterior a la emisión de este informe, serán remitidas al órgano promotor a fin de que, en su caso, sean tenidas en cuenta en la elaboración y tramitación del proyecto.

3. Análisis en base a los criterios establecidos en el anexo III de la Ley 21/2013.

A) Características del proyecto:

El Canal Bajo del Añarbe es la conducción más importante del sistema de abastecimiento a las poblaciones integradas en la Mancomunidad de Aguas del Añarbe. El canal, a lo largo de sus 12 km, posee 23 elementos de control con una interdistancia variable. Dentro de los diferentes usos de estos elementos, denominados casetas, están las casetas de cabeza de sifón (que permiten mantener y limpiar los puntos bajos de los sifones), las casetas que acogen los areneros del canal (que permiten la decantación de elementos pesados), y el resto de casetas que se corresponderían con entradas y salidas de los túneles, que son los tramos de máximo riesgo por posibles desprendimientos.

Dentro del «Plan de Contingencia de abastecimiento en caso de rotura del Canal Bajo», se ha realizado un análisis exhaustivo de la accesibilidad al canal, definiendo los accesos existentes a cada elemento de control o caseta y a cada tramo, determinando las necesidades y planteándose posibles soluciones para aquellos puntos en los que resultaría viable la ejecución de un acceso nuevo.

En este contexto, se ha considerado prioritario el acceso a las casetas C-7, C-15 y C-16. Por lo que se refiere a las casetas que se encuentran dentro de la ZEC de Aiako Harria, aguas arriba de la caseta C-7 no existe acceso rodado, ni siquiera peatonal a ciertos tramos intermedios. Así, aprovechando la definición de las obras para la mejora del acceso a la caseta C-7, se vio la oportunidad de mejorar también el acceso al nivel superior de la caseta C-8, cabeza de uno de los sifones del canal y que en la actualidad solo posee acceso en su tramo final peatonalmente. Este acceso peatonal es suficiente para poder actuar sobre las compuertas, pero no para labores de mantenimiento y conservación del propio canal.

Sarbideen funtzionaltasuna beharrezkoa dela kontuan hartuta, inguruko zuhaitzari eta ikusizko inpaktuari ahalik eta gutxi eragiten saiatuko diren aukerei buruzko azterketan oinarritutako alternatibak aztertu ondoren, aukeratutako irisgarritasunaren aukerak Argorri baserritik abiatzen den bidea du oinarri lehen zatian, haren plantari eta sestrari 100en bat metroan eutsiz, materialak hobetuz eta drainadura egokituz. Puntu horretatik aurrera, bidea bitan banatzen da, halako moldez, non, C-7ra daraman sarbidea (puntu horretatik aurrera 200en bat metro) zuhaitz gune batean barrentzen baita azkeneko metroetan, non gaur egun bide zidor bat ere badagoen, eta beharrezkoa izango da hormigoiztaturiko harri lubetekin eginiko murrutuzko altaxzea, indusketak murrizteko edo/eta saihesteko. C-8ra daraman sarbidea bidea banatzen den puntutik aurrera planteatzen da, 40ren bat metroko luzerarekin.

Sarbideen ereduak sekzioak 4 metroko zabalera du (lur erauzketa egindako aldean 0,5 metroko areka hormigoiztatu bat barne eta aurkako aldean 0,5 metroko landare lurrezko berma bat barne). Sarbideak gauzatu baino lehen, luraren azaleko geruza (30 cm lodia) saneatuko da eta betelaneko eremuetan horren zehar landare lurrezko estaliko da (20 cm). % 20tik beherako aldapan bide zoru 25 cm-ko zabor legarrez osatua egongo da, ehun geotestil batean euskarriruta; portzentaje horretatik gorako aldapan, berriz, zahorren lodiera 15 cm murriztuko da eta 15 cm-ko lodiera izango duen hormigoiz «ildaskatuzko» zolata bat jarriko da. Ur emariak metatzea eragozteko, drainatzeak (hustubideak eta gurutzeak) egitea aurreikusi da.

B) Exekuzio eremuaren ingurumen sentikortasuna:

Proiektua Aiako Harria Parke Naturalaren barruan dago eta, zehazki, Natur Baliabideen Antolamendurako Planean definitutako Landazabaleko Eremuaren barruan dago. Eraikuntza bati lotutako aprobetxamendua duten zelaiak eta labore lurrak integratu ohi dira mota honetako eremuetan, eta NBAPean ezarritako jarduketako arretak neurri jakin batzuk lortzera bideratuta egoten dira, batez ere erabilere eusteko eta baserrien bizi baldintzak eta produktibitatea eta inguruko azpiegiturak hobetzeko.

Gainera, eremu hau Aiako Harria BIL/KBEaren barruan sartuta dago (ES21220016). KBE hau kudeatzeko planak ondokoak jotzen ditu elementu giltzarritzat: baso autoktonoak (pagadi azidofilo atlantikoak eta hainbat harizti mota), erreka haltzadidunak eta dagozkion fauna eta flora, sasitza/larreak eta dagokion flora (txilardi atlantikoak eta mendiko larre azidoak), hidroturben komunitatea eta koleoptero saproxilikoak eta okil beltza. KBEa kudeatzeko zonifikazioaren barruan, proiektua zehatz-mehatz ondoko eremuetan dago kokatuta:

– Abeltzaintza aprobetxamendu estentsiborako eremua: la sarbide guztiak eremu honetan daude. Abeltzaintza erabilera estentsiboa duten soilguneak dira (larreak eta sasitzak); leku hauek zaintzea ezinbestekoa da, lekuaren izendapena motibatu duten flora eta faunako espezie batzuen kontserbazio egoera ona bermatu ahal izateko.

– Ebuluzio naturaleko eremuak: Kontrol etxolak kokatuta dauden lekuak dira, non barne sartzen baitira harizti azidofiloak, baso mistoak, e.a. Balio ekologiko handiko eremuak dira, leku osorako giltzarriak diren prozesu funtzional asko bertan gertatzen baitira, eta oso bereziak diren edo arrisku handian dauden habitat naturalak aterpetzen dituztenez, beharrezkoa da leku hauetan ahalik eta esku hartzerik gutxi egitea.

– Nekazaritza aprobetxamendu intentsiborako eremua: eremu mendebaldearen bihotzean dago eta baratzeak, mintegiak eta fruta arbolak barne hartzen ditu.

– Lurraldearen lur zerrenda txiki batzuk baso aprobetxamendu estentsiborako eremuaren barruan daude.

Landarediari dagokionez, eremuaren zati handi bat belardiz edo larrez okupatuta dago; hala ere, harizti/baso misto atlantikoek ere azalera eder bat hartzen dute (non haritzak eta gaztai-

Tras un análisis de alternativas basado en el estudio de opciones que procuren, desde la funcionalidad necesaria de los accesos, minimizar la afección al arbolado del entorno y el impacto visual, la opción de accesibilidad elegida se apoya en un primer tramo en el camino que parte del caserío Argorri, manteniendo la planta y rasante del mismo en unos 100 m, mejorando los materiales y adecuando el drenaje del mismo. A partir de ese punto el camino se bifurca en dos, de tal forma que el acceso a la caseta C-7 (de unos 200 m a partir de este punto) se adentra en sus últimos metros en una zona arbolada a lo largo de unos 80 m, donde actualmente existe también una senda y será necesario la implantación de muros de escollera hormigonadas que eviten y/o reduzcan las excavaciones a realizar. El camino a la caseta C-8 se plantea a partir del punto de bifurcación con una longitud de unos 40 m.

La sección tipo de los accesos tiene una anchura total de 4 m (incluyendo una cuneta hormigonada de 0,5 m en el lado del desmonte y una berma de tierra vegetal de 0,5 m en el lado opuesto). Previamente a la ejecución de los accesos se saneará la capa superficial del terreno existente en un espesor de 30 cm y en las zonas de relleno su salud se cubrirá con 20 cm de tierra vegetal. El firme para pendientes inferiores al 20 % estará compuesto por 25 cm de zahorra apoyado en una malla geotextil, y en los tramos con pendientes superiores a este valor se reducirá el espesor de la zahorra a 15 cm y se colocará una solera de hormigón «acanalado» de 15 cm de espesor. Se han previsto drenajes (sumideros y cruces) que eviten la acumulación de caudales de aguas.

B) Sensibilidad ambiental del ámbito de ejecución:

El proyecto se localiza dentro del Parque Natural de Aiako Harria y, en concreto, dentro de la Zona de Campiña definida en su Plan de Ordenación de los Recursos Naturales (PORN). En este tipo de zonas se integran áreas del Parque Natural que cuentan con prados y cultivos con aprovechamiento asociados a una edificación, y las directrices de actuación establecidas en el PORN para estas áreas van encaminadas a la adopción de medidas que permitan el mantenimiento de los diversos usos y mejora de la productividad, de las condiciones de vida en los caseríos y de las infraestructuras de la zona.

Además, la zona está incluida dentro del LIC/ZEC de Aiako Harria (ES21220016). El plan de gestión de esta ZEC identifica como elementos claves a los bosques autóctonos (hayedos acidófilos atlánticos y diversos tipos de robledales), las regatas-aliseda y la fauna y flora asociada, los matorrales-pastizales y flora asociada (brezales atlánticos y pastos ácidos de montaña), la comunidad hidroturbosa y los coleópteros saproxilicos y el pito negro. Dentro de la zonificación para la gestión de la ZEC, el proyecto concretamente se enclava en las siguientes zonas:

– Zona de aprovechamiento extensivo ganadero: Prácticamente la totalidad de los accesos transcurre por esta zona. Son las áreas de raso (pastizales y matorrales) de uso ganadero extensivo, cuyo mantenimiento resulta imprescindible para garantizar el buen estado de conservación de algunas de las especies de flora y fauna que han motivado la designación del lugar.

– Zona de evolución natural: Las áreas donde se ubican las casetas de control pertenecen a esta zona, en las que se incluyen los robledales acidófilos, los bosques mixtos, etc. Son zonas de alto valor ecológico con procesos funcionales claves para el conjunto del lugar, o que albergan hábitats naturales o especies singulares o muy amenazadas, que necesitan del menor grado de intervención posible.

– Varias franjas pequeñas del territorio se encuentran dentro de la zona de aprovechamiento extensivo forestal.

– Varias franjas pequeñas del territorio se encuentran dentro de la zona de aprovechamiento extensivo forestal.

Respecto a la vegetación, gran parte del ámbito se encuentra ocupado por prados o pastos, si bien también existe una gran superficie ocupada por robledal-bosque mixto atlántico

nondoak nahasten baitira). Eremuaren iparraldean iralekuek hartutako zona batzuk ere badaude, eta mendebaldean zuhaiztiak dira nagusi (fruta arbolak gehienak); hemen, tamaina ederreko ereinotz bat lokalizatu da. Sarbideak banatzen diren puntutik hurbil, 7. eta 8. etxolen alderantz, tamaina txikiko gorosti bat lokalizatu da. Gainera, zelaietan, bi espezie inbaditzaile hautesman dira: *Paspalum dilatatum* eta *Sporolobus indicus*.

Fauna intereseko espezieei edo babestutako espezieei dagokienez, oro har, Aiako Harria hegazti nekrofagoen planaren barruan dago «interés bereziko eremu gisa eta hegazti horiek elikatzeke babesgune gisa», eta jarduketaren zehatzagoari dagokionez, eremu hau desman iberiarren interes bereziko arearen barruan dago (desmana desagertzeko arriskuan sailkatuta dago eta dagokion kudeaketa plana du). Gainera, katalogaturik dauden ondoko espezieentzat proposatutako lehentasunezko banaketa-zonen barruan dago eremua, kudeaketa planik ez badute ere. Espezie hauek dira: uhandre piriniotarra, suge berde-horia, okil txikia, sai arrea eta belatz handia. Eremuaren ingurunearen parte baten ezaugarriak (heldutasun jakina duten basoak) kontuan hartuta, baliteke koleoptero saxofonikoak eta okil beltzak hemen bizi izatea; hala ere, ingurumen dokumentua idatziz jarri duen lan taldeak bertatik bertara egindako bisitaldietan haietako bat ere ezin izan zuen ikusi.

Geologikoki, aztergai daukagun eremua azaleratzen diren elementu batzuen gainean dago; elementu hauek arbelak eta greywackeak dira (eremu honetako mutur batean soilik dira nagusi). Halaber, «Urumeako haran meandriforme enkajatu» izeneko interes geologikoko ibilbidearen parte da lekua; bihurtu ez betetako ibai arroila bat du, ibaiak berak sorrarazia material paleozoikoen gainean. Eskualde mailako interes zientifiko eta dibulgaziozkoa du; irisgarritasun erregularra du eta haren hauskortasuna txikia da.

Hidrologikoki, aztergai daukagun ingurua «Mazizo Paleozoikoak» izeneko lurpeko ur masei dagokio, «Paleozoikoak eta Granitoideak» jabari hidrogeologikokoak. Litologia (arbelak eta greywackeak) dela-eta, porositateagatik iragazkortasun txikia du eta akuiferoen urakortasuna oso baxua da. Bestalde, eta hidrologiari dagokionez, eremuaren barruan ez dago ur ibilgurik; hurbilena Errekabeltz erreka da (eremuaren iparraldean); erreka honetako uraren egoera badirudi ona dela, eta jarduketaren eremuko jariatze uren parte bat horra drainatzen da, urik gehiena Urumea ibaira drainatzen bada ere (egoera kimiko eta biologiko ona du).

Paisaiari dagokionez, eta EAEko Paisaia Bikainen eta Berezien Katalogoaren Aurreproiektuarekin bat eginik, proiektua bi arro bisualetan kokatuta dago (Pagoaga arro bisuala iparraldean eta Añarbe arro bisuala hegoaldean). Añarbe arro bisuala bere basoengatik eta baso erabileragatik karakterizatzen da gehienbat; eta orokorrean, ez du ez hiri eremurik ez etxebizitzarik ez azpiegitura nabarmenik. Eguneroko arrotzat jotzen da (herri guneetatik, ekonomia jarduera guneetatik eta komunikabideetatik erraz edo oso erraz ikusten da) eta paisaia-balio handia du. Hori dela eta, EAEko Paisaia Bikainen eta Berezien Katalogoaren barruan sartu da.

Pagoaga arro bisuala eguneroko arro bisual bat da, bere basoengatik eta baso erabilerengatik ere karakterizatzen da, ez du ez urbanizaziorik ez azpiegiturarik, Añarbeko arroak adina inpaktu bisual positibo ez baditu ere; hori dela eta, haren paisaia-balorazioa ertaina da eta horregatik ez da EAEko Paisaia Bikainen eta Berezien Katalogoaren barruan sartu.

Bestalde, Donostialdea Eremu Funtzionaleko Paisaiaren eta Zehaztapenen Katalogoaren arabera, aztertu beharreko eremua paisaia natural gisa karakterizaturik dago. Paisaia-unitate bat barne sartu da, «barnealdeko mendiak» (bi zonatan banatuta dago: Añarbeko Mendiak eta Urumeako Mendiak). Eremuan pai-

(donde se mezclan ejemplares de roble y castaño). Al norte del ámbito existen varias zonas ocupadas por helechales, y al oeste una zona arbórea conformada fundamentalmente por frutales, en la que se localiza un ejemplar de laurel de porte considerable. Próximo a la bifurcación de los accesos hacia la caseta 7 y 8 se localiza un ejemplar pequeño de acebo. Además se detecta en los prados la presencia de dos especies invasoras: *Paspalum dilatatum* y *Sporolobus indicus*.

Por lo que se refiere a las especies faunísticas de interés o protegidas, de forma general, Aiako Harria se encuentra dentro del plan de gestión de aves necrófagas como «área de interés especial y zona de protección para la alimentación», y por lo que se refiere al ámbito más concreto de actuación, éste se ubica dentro del área de interés especial del desmán ibérico, clasificado en peligro de extinción, y con plan de gestión. Además, el ámbito queda dentro de las zonas de distribución preferente propuestas para las siguientes especies catalogadas aunque sin plan de gestión: tritón pirenaico, culebra verdiamarilla, pico menor, buitre común y halcón peregrino. Dadas las características de parte del entorno del ámbito (bosques con cierta madurez) también se considera probable la presencia de coleópteros saxofónicos y de pito negro, aunque durante las visitas de campo efectuadas por el equipo redactor del documento ambiental no se pudo observar ninguna de ellas.

Geológicamente, la zona de estudio se ubica sobre materiales aflorantes constituidos por una alternancia entre pizarras y grauwacas (que dominan solamente en el extremo este del ámbito). Asimismo, la zona forma parte del recorrido de interés geológico denominado «Valle meandriforme encajado del Urumea» conformado por la garganta fluvial con una alta sinuosidad producida por el río sobre los materiales paleozoicos. Presenta interés científico-divulgativo a nivel regional, una accesibilidad regular y baja fragilidad.

Hidrogeológicamente, el área de estudio pertenece a la masa de aguas subterráneas denominada Macizos Paleozoicos, del dominio hidrogeológico «Paleozoicos y Granitoides». Debido a la litología (pizarras y grauwacas) presenta baja permeabilidad por porosidad y la vulnerabilidad de acuíferos es muy baja. Por su parte y en lo referente a la hidrología, dentro del ámbito no discurre ningún curso de agua, siendo el más cercano la regata Errekabeltz (en el límite norte del ámbito) que parece contar con un buen estado del agua y al que drenan parte de las aguas de escorrentía del ámbito de actuación, si bien la mayor parte de ellas drenan directamente al río Urumea (que presenta un estado químico y biológico bueno).

Respecto al paisaje, y de acuerdo con el anteproyecto del Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV, el proyecto se sitúa en dos cuencas visuales (la cuenca visual Pagoaga al norte y la cuenca visual Añarbe al sur). La cuenca visual Añarbe se caracteriza por su componente y uso eminentemente forestal, y de forma general no incluyen zonas urbanas, ni viviendas ni elementos infraestructurales reseñables. Se considera una cuenca cotidiana (visible o muy visible desde los núcleos de población y de actividad económica y desde las vías de comunicación) y de muy alto valor paisajístico, por lo que se ha incluido en el Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV.

La cuenca visual Pagoaga, es una cuenca visual cotidiana, también caracterizada por su componente y uso forestal, sin urbanizaciones ni infraestructuras, si bien no presenta impactos visuales positivos tan elevados como la cuenca del Añarbe, lo que hace que su valoración paisajística sea media y que no se haya incluido en el Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV.

Por su parte, según el Catálogo del Paisaje y Determinaciones del Paisaje Área Funcional de Donostia/San Sebastián, el ámbito de estudio se caracteriza como paisaje natural. Se incluye en la unidad de paisaje «montañas interiores» (dividido en dos zonas: Montes del Añarbe y Montes del Urumea). En el ám-

saia ukiezinik ez dago (paisaia historiko, sozial edota kulturalik ez, beraz); iparraldearen bihotzean, berriz, Paisaia-Intereseko Eremu Berezizat jotzen da.

Azkenik, kultur ondasunei dagokienez, Eusko Jaurilaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak dio proiektuaren eremuan ez dagoela elementu katalogaturik, eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei dagokienez, EAEko inbentarioaren arabera, lurzoru kutsatu dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten dituzten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioaren barruan kokalekuri ez dagoela.

C) Balizko inpaktua:

Aurreko atalean aipatutako ingurumen elementuen ezaugarriak kontuan hartuta, proiektuak ingurumen baliabide hauen gainean izan dezakeen afekzioa esanguratsua izan ote daitekeen zehaztu beharra dago; horretarako, kontuan hartu behar dira 21/2013 Legearen III. eranskinean horri buruz ezarritako irizpideak (inpaktuaren hedadura, tamaina eta konplexutasuna; gertatzeko probabilitatea; eta horren iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna).

Alde horretatik, aurreikustekoak diren ondorio nagusiei dagokienez, honako hau esan behar da:

– Geomorfologiari eta lurzoruei buruz: Eragin hau batez ere obren fasean zehar gertatuko da, bi arrazoi hauengatik: instalazioen okupazioengatik (materialak pilatzeko lekua, hondakinak jasotzeko puntua...) eta sarbideen sekzioa zabaltzeko egin beharrekoak diren lur mugimenduengatik. Okupazio honek aldi baterako izaera du eta itzulgarria izango da; eta okupatu beharreko espazioa minimizatzeko eta balio handiagoa duten lekuetan inpaktua minimizatzeko neurriak hartu dira. Ingurumen dokumentuak inpaktu bateragarritzat jotzen du. Labur esanda, intereseko lurzoruen gaineko afekzioa (nekazaritza lurzoru, intereseko landaredia duen lurzoru) batez ere gertatuko da trazatu berria planteatzen den lekuan, baina hedadura txikikoa denez, bateragarritzat jotzen da.

